

MURGIATARRAK ARTEDERGINTZAN

KARMELE ARZAK

AURKEZPENA

Goi mailara iristen den familiarik ez da hain ugari sortzen. Ez eta mendez mende aurrerapide izugarria eman eta bere izena aitzindari bezala aipatua izan dutenekoak erraz aurkitzen. XVIII. mendetik XIX. era bitartean jaio, bizi eta hil ziren Murgiatarrak urrezko ilargi eder merezi lukete.

Heuren nekealdiak ahaztuta, dizdirak bakarrik berotzen gaituzten urtealdira iritsi baitdira. Gaur, hemen, Errenderin aipatzekotan gaude. Ez baitziren nolnahi pasa mundu honetatik. Batzuk, besteak baino apaindua-goak izan baziren ere, elkar ondo kateatuak agertzen zaizkigu begi aurrean. Guraso berdinetik sortu eta iturri berdinetan egarriak ase zutelarik, nekazari zen aitak lurra nola maite irakatsi zien. Euskalherriatik atera ziren orduko, herria zer zen ondo jakina zeramaten.

«Beldurra eta gezurra ezagutzen ez den lurraldean jaio zen amak eman zidan bere odolaren bidez nere sorterriarenganako dudan maitasun iraunkorra». Hitz eder horiek Manuel MURGIAREN ahoak esan bazituen ere, esan genezake, lema berdinarean azpian bizi izan zirela Murgiatarrak, etengabe-ko lokarri sendo batek inguratuko balitu bezala. Manuelek bere amarengandik jasotako zuzi hura bere aitona arbasoengandik jasotako ber bera zen eta. Sua ez zen ez etendu lehen egunean baino bizkorrago iraun baizik, txispartak gaurdaino iritsi zaizkigunez. Txinparta hauek bilaraz gaituzte gaur hemen.

FAMILIAREN BERRI

Murgiatarrek Artedergintzari eragin handia eman ziotela esatea ez du gehiegi argitzen bere ekintza. Aldiz, nondik norainokoak izan ziren esaten badugu, hori bai.

Musikalariak izan ziren lehenbiziko Murgiatarrak. Literaturgintzan eta Margolaritzan arrakasta ederrak lotuz, ez zuten mespretxatu olerkari arloa. Denetan trebe, nahiz eta trebetasun hori lau belaunaldi baino luzeagoa ez izan.

Lehen esan dudanez, gezurra izan zen Joaquín Tadeo ezagutu ez zuen zera. Hemeretzi urte pasa behar izan zituen alde batetik bestera, zoko guztiak astertzen lanpostu aurkitu nahian. Calahorran eta Iruinan eraturako asterketan azaldu omen zuen burua. Malagara iritsi arte, han gorpuztu egile eta interprete izatera bultzaraz zuten esperientziak.

Musika munduan Joaquin Tadeoren biziak goratzen du Murgia izena. Bere ondoan, beste danak itzalean gelditzen dira. Bildurra bazterturik, bere eritsi gogorren morroi bihurtu zuen sarritan luma zorrotza, eguneroko soinua jotzen erabiltzen zituen hatzen artean.

Bere anaia Domingo ez zen Euskalherriatik irten, Oiartzunen eta Tolosan izan zen organista. Zerbait idatzi zuela badakigu, baino tamalez partitura horiek galdu dira.

Jose Joaquin, Domingoren semeak, osabaren arrastoak jarraituz Malagaraino zuzendu zituen pausoak. Organista bera ere, egiten hasi zen obra bakana ez zuen bukatu.

Domingoren eragina ez zen bere musikan bakarrik finkatu. Berak susmatzen ez zuen ondorio pozgarria erakarri zion alaba txikiena zen Concepcionek.

Galizian ezkondu eta Manuel MURGIA izan zen ezkontzaren fruitu. Honekin amaitu zen Murgiatarren eragina musika sailean bide berriak erai-kiz. Literatura, historia eta olerkiak jorratuaz eman zion Manuelek nortasuna bere sorterriari. Bere lanak sutu zuten lo zegoen herria: Galizia.

Manuelen emazte zen Rosalia de CASTRO ez dugu Murgiatarrekin kokatzen. Rosaliak maila berezi bat merezi duelako, bereiziki. Manuel eta Rosalia de CASTROgandik sorturiko seme-alaben artean berriz bi izendatuko nituzke: Alejandra eta Ovidio.

Alejandra, alaba zaharrena, gurasoen babesean egon zen beti. Margolaritzarako zuen erreztasuna Pradoko Mureoraino iritsi nonbait eta bertan lana eskeini zioten. Lan hau aitak atsegin ez zuelarik ezetza eman zuen. Fama handikoa ez izateak ez du gutxitzen, ordea, bere erreztasuna, bere anaiaren bultzagile izan zelarik, batez ere.

Madriruntz jo zuen Ovidiok, margolari ezaguna izateko urratsak mar-txan ipini zituelarik itxura txarreko haize gaizto batek eraman zuenean. Betirako moztu ziren bere ametsak eta bai isildu ere hain fruitu emankor-rak zabaldu zituen familiaren adar hori ere. Bidasoako jakintzak, Oiartzungo bailarako haizeak eta Tolosako edertasun guztiek sutu zuten odol hura, agortu.

SORTERRIA

Nork ausartuko ote, jaio den herriaren historia eta bereizgarriek bere bizitzan zer-ikusirik ez dutela esatea? Murgiatarren sorterrria Irun izan zala har dezagun kontuan. Eta haria hartuaz, hiru eginkizun garrantzitsu azpimarra nahi nituzke, bere mendea nolakoa izan zen ere ahaztu gabe.

Ernai dago mugako herri bat, gurea bezala, Frantzia eta Espainiaren arteko gorrotoak gain har ez dezaioten eta gerratera eraman. Borroka bizian zebilen gendea Irunen, betidanik. XVIII. mendearen hasieran Espainiako poterea Borbondarren eskuetan zegoenez gero, optimista zen Gobernuak, egundoko pakealdia zetorkiela uste zutelarik. Nola ulertu horrela ez bada Irungo herria ia defentsarik gabe ustea garai haietan. Nazio bietako erregeak familia batekoak izatea aitzaki ederra iruditu nunbait agintariei. Azkar batean eman ziren arrazoia irundarrei ondorengo ekintzak, 1717. urtean frantses indarrak Baionaratu zirenean. Berehala eratu zituzten puntu estrategikoak Gipuzkoako diputatuek. Irundarrak etziren fida ala ere eta badaezpada batengaitik Tolosara bidali Elizan gordetako tresnak eta Artxiboko paper guztiak.

Horrela zen gutxi gora behera mugako herri baten egoera. Beti zutik, beti adi, beti prest, une batetatik bestetara pizt zitekeen erasoaldira begira. Gerratearen azpian edo arriskuan bizi zen gendeak beste ekintzetarak behar zuen indar oroz ekiteak ez gaituela arritu behar, deritzot.

Hori horrela izanik bigarren bereizgarria izan daiteke Nicolas MURGIA etortzearen arrazoia, Zerk bultza zuen bestela Astigarragatik Iruna nekazarria zen gizon hura etxea finkatsera? Ingelesak zekarkiten arriskua itxasoz 1753. urtean.

Defentsa modura Donostiako itxiturara bidali zituzten irundar indarrak. Serapio MUGIKAK esaten duenez, ez zen Irungo herrian guda aipagarririk 1766. urteraino, Nicolas MURGIA ezkondu eta familia ugaritzen hasi zitzaionez gero. Lasai bizi ahal izatea eta diru kontutan patxara ederrean egotea dira, nere ustez, Nicolas MURGIAK, nabaitu zituen gauza bi Iruna etorri baino lehen. Garrantzi handiko eginkizunetan sartuta baitzebilen Irungo gendea buru belarri.

Bailarako marinelek hainbat maite zuten Ama Junkalekoaren irudia zegoen elizan eraberriketa garrantzizko bat hasi zuten (1). Juan SALGADO donostiarra egin zuten arduaradun eta bere babesean eliza apaindu, erretablo bikainari urrezko bainua emanaz. 1756. urtean ezarri zuten udaletxearen lehenengo oinharria.

Eliza eta Udaletxea, gaur egun herrian ditugun obrarik handienak Nicolas MURGIA Pascuala Antonia AZCONOBIEtarekin ezkondu zen garaioak dira. Etorकिनak ziren biak. Azconobietarrak bi belaunaldi lehenago.

(1) *El Coro de Aranzazu en Irún*, izenburuko artikulua Fr. J. I. LASAK idatzia da.

Pascuala Antoniaren gurasoak Junkaleko elizan bataiatuak izaki Serapio MUGIKAK esandako Irungo sortetxeko zerrendan ez dira aurkitzen (2).

Sei senidek osatzen zuten Murgiatarren familia. 1759. urtarrilaren 13 an jaio zen Joaquin Tadeo. Juan MURGIA eta Maria Magdalena de LIRRAZABURU dira bere aitaren gurasoen izenak. Amarenak berriz Juan Bautista de AZCONBIETA eta Josefa de ARANIBAR aipatzen ditu aurkitutako jaiotz agiriak. Abustuaren 23 an, urtebete beranduago bigarrena, Felipe Domingo. Hirugarrena, Domingo Maria Joaquin 1762. otsailaren 8an. Josefa Ana, 1763. urrian. Jose Bentura 1765. otsailaren 26an eta Jose Manuel Angel 1767, ekainaren 6an. (3).

Zeintzuk ziren Murgiatarrak? Nola bizi izan ziren? Joaquin Tadeo jaio zenetik hirurogei urte geroago, Malagako katedraleko kabildoak familiaren agiria eskatu izan ez balu, Irungo artxiboan aipatu gabe, bizi ez balitz bezala pasako zen gure familia.

1789. apirilaren 6an Frantziako iraultzaren urte berdinean, Antonio IPARRAGIRRE, orduko elizetxeko erretore zenak honela dio: «certifico que personas temerosas de Dios y de sus conciencias que han sido llamadas a oficio por mí, ninguna de ellas es deudo, enemigo o dependiente de D. José Joaquín Tadeo de MURGIA de sus padres o ascendientes... Acredito pues que D. José Joaquín Tadeo de MURGIA es hijo de Nicolás MURGIA y Pascuala Antonia de ASCONBIETA... ellos y demás ascendientes son cristianos viejos, limpios de toda mala raza, macula de moros, mulatos, judíos y herejes y de los recién convertidos a nuestra Santa Fe católica que no han sido presos, acusados ni castigados por el Santo Oficio ni por otro Tribunal».

Domingo eta Joaquin txikiak zirelarik Matxinadaren gertaera izan zen argigarri, hirugarren bereizgarria bezala.

1766. urtean Irun ez zen Matxinadaren aldera ez eta kontra jarri. Bere neutralidadeari eutsi zion, Oiartzun eta Donostia artoa eta gariaren prezioa jeisteko altxatu ziren baserritarren kontra jarri bazen ere. Argi agertu zuen bere erantzuna: «Tenía la Universidad gran satisfacción por su quietud interior y no sólo no estaba dispuesta a no dejarse insultar sino que tenía dadas órdenes de recibir con agrado a los alborotadores si venían a fin de asegurar la paz interpretando así los deseos de la provincia, pero para mantener su neutralidad la Universidad mantendrá lo dispuesto por la Diputación y formará tres compañías o más si fuera necesario».

Nondikakoa ote Joaquinek eta Domingok musikarako zuten zaletasun hori? Joaquin Tadeo jaio baino urtebete aurretik ospaturiko jaiak adierazten duenez, Irunen ez zen musika giro handirik. Organista bai: Vicente QUINTANA. Berari eskatu zioten irundarrek Arantzazuko abesbatza herrira ekar zezala 1758. urtean eliza berritzeko lanak amaitu zirenean.

(2) Familiaren agiria Irungo Udaletxeko Artxiboan, *Hidalguías*, sail.

(3) Eliz-barrutiako Artxiboan.

Vicente QUINTANA izango zen zihurki bi anaietarako zaletasuna piztaraz zien gizona. Musika girorik ez bazen ere herbestekoei entzuteko gastatu zituzten bertan beharrezko zituzten diruak. Ohitura zenez, inguruak ezaguteraztera eraman behar ziren abeslariak eta irundarrek txango bakarra prestatzeko ordeztu, hiruzpalau prestatu. Hori aski etzalarik, opariz bete zizkietan faltrikak, artilezko musizapiz eta prailleentzat txokolate onez. Zazpi egun sartu behar izan zituzten abeslariak Irundik atera zirenezkeroztik Arantzazura itzultzeko.

Hortik aurrera ia deusez ez dakigu Murgiatarra. Joaquin eta Domingo ez ditugu berriro ondoan elkartuko. Etxetik alde egindo du anai zaharrena. Aipaturiko familiaren agirian agertzen den «tonsurado» hitzak adieratzen digu zertara joan zen.

Norekin egin zituen ikasketak Joaquinek? Aita DONOSTIAK Italiara joan zela dio. Hori frogatzerik ez dut ahal izan. Urrengo notizia Madridentik datorkit. Han Basilio Sesé zenarekin pasa zituen hamar bat urte.

Bere irakasle Basilio 1756. urtean jaio zen Zaragozan (4). Sei urte zituen geroztik hasi zen musika ikasten. Descalzas Realeseko organista bezala ezagutua da. Madridentik Kontserbatorioan bere obra bakarra besterik ez izan arren, beste zenbait obren egile bezala aurkezten du Baltasar SALDONIK (5).

Lan fijo bat aurkitzea etzan erraza urte haietan. Oposizio bitartez eskuratzen zuten eguneroko ogia zenbait organistek. Hauen antzera dabil gure gizona. Calahorran eraturiko asterketan hartuko du parte, 26 urte dituelarik eta hauetatik 16 muska jotzen zeramatzelarik. Nafarroan jaso zuen lahenengo zartakoa. Drogarik ez zuen gaindu (6).

Iruinean ere egon zela dio Aita DONOSTIAK. Joaquin Tadeoren arrastorik ez da, ordea, Katedraleko Artxiboan. 1776, 1787, 1831 hiru urte horietan egiten diren asterketan ez dugu frogatzerik Joaquin Tadeo han izan zenik. 1776, urtean Jose FERREREk irabazi zuen lanpostua eta asterketa horretan parte hartu zuten gizonen zerrendan ez dago MURGIARIK. 1787. zerrenda desagertu denez, dudan geldituko zaigu betirako joan zen ala ez, zeren irabazi Cristobal de la PUENTE y LLANA irabazi baitzuen lana eta organista gelditu (7).

Bere joan-etorriak eta bidaiak Malagan bukatuko dira 1788. abenduaren lehenengoan Malagakoek organista autatuko dutelarik. Handik bost hilebetetara 1789. maiatzaren 14an onartuko du ofizialki bere bizimodu guztirako lana. Jo eta ke arituko zaigu obrak egiten. Orain ez dizkizuet aipatzen nere lanaren helburu ez delako M. Angelesean baizik.

(4) Madriko Real Conservatorioko liburetegia.

(5) Liburutegi nazionalan, *Efemérides de músicos españoles, así profesores como aficionados*, Baltasar SALDONIK egina.

(6) LEKUONA tar Manuel jaunak Calahorran egindako ikerlanetan.

(7) Iruinako Katedraleko Artxiboan.

Ez musikagintzari bakarrik, idazgintzari ere heldu zion. Napoleonen aurka jeiki zen herriaren alde zegoelarik, «La música considerada como uno de los medios más eficaces para excitar el patriotismo y el valor» izenburutiko lana argitaratu zuen 1809. urtean (8). Aurten Madrileko Kontserbatorioan aurkitu dudana obra berbera. Entzun ditzagun ere ahotsez esaniko hitzak: «cuando los gloriosos esfuerzos de la España, a favor de su independencia, de su religión y de su adorado Rey Fernando VII son el asombro del universo, cuando los pueblos de Europa, atónitos al ver nuestro valor, esperan acaso recobrar a nuestra sombra la libertad perdida». Ideien bidez ezagutzen dugu, bai, gizonaren indarra eta pentsamoldea: «la música en las acciones humanas ha sido uno de los primeros móviles de los mortales en todas las edades y bajo cualquiera de los Gobiernos. Españoles músicos sacudid ese letargo, salid de ese fango de inacción en que yacéis... De ese modo lograréis el fin de vuestros trabajos. De ese modo resucitaréis los tiempos gloriosos en que los españoles compositores fueron la admiración de Europa por las inmortales obras de SALINAS, RAMOS, VICTORIA, MORALES, HEREDIA, ESCOBEDO».

Buru ongi finkatu zuen Joaquin Tadeo MURGIAK bizi izan zen herrian. Kabildoek estimazio handiz ikusten zutela badakigu, behintzat. Baina bai txirmoniak bueltan eman ere berak. 1803. eta 1816. urteetan, bi bider Toledora, maila handiagoko katedralera joateko egokiera izan zuelarik ez joatea erabakitzen du, azkenik. Francisco GUTIERREZ zenaren ordezkari ziotela lana esango nuke, zeren 1799. urtean organista izendatu beitzuten eta handik aurrera gaixo maiz egon zen gizon hura 1821. urtean Toledon hil zen arte (9).

Familiarekin zernolako harremanak izan zituen ez dugu jakingo. Ama hil zaiola Irunen eta kabildoari eskatzen dio baimena, amaren hilotzari azken agurra eman zezaion. Hil agirietan, ordea, bere amarenik ez da azaltzen eta, tamalez, amak testamendurik egin zuenik ez dakigu eta semetaz zer esan zezakeenik ere ez.

Domingo eta Joaquin anaien arteko harremanetan zerbait bereizia bada. Domingoren seme bigarrenaren pausoak zaintaen ditu Joaquinek bere besutako izan balitz bezala.

Dena den, Joaquin Tadeoren eraginaz musikagintzan inork ez desake duda. Jose SUBIRAK bere «Historia de la Música»n dionez haize berriak sartu aituzten musikariaren artean kokatzen du: «aficionados que se inclinaron hacia las manifestaciones folklóricas de progenie andaluza y fomentaron el encauzamiento de los compositores por esta corriente artística. Mantened la reiterada costumbre de intermediar canciones las jornadas de la Comedia en los Coliseos españoles esto contribuye a renovar el repertorio con frecuencia. Los operistas Manuel GARCÍA, GOMIS, GARNICER y SA-

(8) Madrileko Real Conservatorio deritzan liburutegian.

(9) Liburutegi nazionalan, Baltasar SALDONIK egindako, *Efemérides de músicos españoles, así profesores como aficionados*.

FONI y el organista de la catedral de Málaga Joaquín Tadeo de MURGIA y otros más figuran entre los productores de este género» (10). MITJANAK fama handia lortu zuela Espainiatik kanpo inprobisaketak zirela eta azpimarratzen du. Joaquinen errestasuna eta jakinduraik teknika aldetik ez zion itzatic egin musika konposatzen zuen gizonari.

1836. urtean hil zen Malagan Joaquin Tadeo de MURGIA.

DOMINGO ANAIA

Atzera gaitezen orain. Anai zaharrena utziaz, hirugarrenari lotuko gatzai. Domingo Maria ZESTOAN bizi zen Felipa EGAÑA zeritzan emakumearekin ezkontzen zaigu 1786. azaroaren 13 an, Igeldoko elizan. Bost seme-alaba izan zituzten hamar urte barru. 1787. irteko irailaren 9 an jaio zen Joaquin M. Nicolas Domingo. 1789. urtean goizeko bostetan berriz Jose Joaquin, aita bezala organista izango zena. Jose Joaquin ez da ordea Ignacio QUEREJETAK dion bezala bere osabaren besoetakoa. 1791. urriaren 25 an J. L. MURGIA jaio zen. 1793. abenduaren 2 an M. Josefa MURGIA. Eta azkenekoa jaiotzen denean 1797. urtean Pedro Ignacio MURGIA, alkatea eta jueza den pertsonaren besoetakoa izango da. Beraz oraindik esan ez duguna: Domingo Errenderin bizi izan zen, ezkondu baino lehen. Han jaio zitzaizkion bere lehen bost seme alabak. Organoa jotzen erantzungo nioke nik norbaitek zer egiten zuen Domingok Errenderin galdetuko balida (11).

Oso gizon estimatua behar zuen izan Domingo pasa zen leku guztietan, Alkatea ere bertara zitzaion Errenderin seme txikiena bataiatu zuten egunean.

Oiartzungo San Esteban elizako organista izendatu zuten 1797. abenduaren 22 an. «En quien concurre-n la habilidad y suficiencia necesarias para que sirva en su facultad dicha parroquia», esanaz onartua izango da Domingo Oiartzunen. Egunean hiru pezetako soldata ematen zioten eta urteoro 4.380 reales de vellón (12).

MURGIATAR gazteenak oiartzuarrak dira. 1800. otsailaren 15 an jaio zen Ramon MURGIA. 1801. apirilaren 25 an Fidela Ignacia. 1803, abenduaren 23 an Celedonio eta 1806. urtarrilaren 29 an Concepcion, txikiena,

1815. urtarrilaren lehenean MURGIATAR familiak Tolosara aldatzen du bere bizileku, Concepcion txikienak 9 urte besterik ez dituelarik. Oiartzunen, berriz, Joaquin FERNANDEZ gelditzen da organoan, Domingoren orde. Tolosan ere egingo ditu Domingok lagun berriak.

Tolosak bazuen giro musikala urte haietan. Aita DONOSTIAK Tolosako organoari buruz idatzitako azalpenean frogatzen du esandakoa: «aun sien-

(10) E. E. bilduman eta Madrileko Contserbatorioko liburutegietan.

(11) Eliz-barrutiako Artxiboan.

(12) Euskalherriaren alde, Iglesia de Oyazun.

do villa pequeña en siglos pasados tuvo una cierta densidad musical. Sus órganos, su capilla y el repertorio aunque esquemático, indican que la música ocupaba la atención del Ayuntamiento y velaba porque no desmereciese del respeto debido al templo» (13).

Esan beharra dago osaba eta ilobaren izenak nahazpilakatuak bihurtu direla artikulu horretan. Jaiotz agiriak ikusi eta gero esan nezake osabaren izen Joaquin Tadeo izan zela eta ilobarena berriz Jose Joaquin.

Behin izenaren problema argitu ezker, orain bere jaiotz egune geratzen zaigu kokatu beharrean. Ez doaz zuzen ezin daitekela 1789. urtean jaio diotenek. Dudik ez dago Jose Joaquin frantzes iraultzaren urte berdinean sortarazi zutela, bere osabak lanpostu ofiziala onartu zuen une berdinean gainera. Inork ez jakitea zein urtetan agertu zen Malagan beste arazoa da. 1815. urtean bigarren organista izendatu zutenean bazeramazkila gutxienez bosten bat urte hirian esaten dute, beraz bere familia Tolosaldera aldatu zen baino lehendik. Jose Joaquin ez da oiartuarra, hain maiz idatzia ikusi dudan bezala, errentiarra baizik.

Aitak eta semeak urte berdinean lanpostu berriak lortuta bide zeharo desberdin hartuko dute. Batek errespetu handiz amaituko ditu bere azken urteak eta bigarrenak, berriz, lau urte beranduago kabildoen aserrea behin baino gehiago bizkarreratuz.

Domingo MURGIAREN zartzarora ez zen oso alaia izandu. Bera baino lehen hil baitzitzaizkion hiru seme eta alaba Fidela Tolosan. Azken urteak Ladislao ZABALA, VILLAFUERTES kondearen etxean bizi izan zen alaba Josefa zenarekin batera.

Biziki maite zuela kondeak berriro frogatu zuen Domingo mundu honetatik alde egin zuenean 1844. urtean hain zuzen, berea balitz bezala zaindu zuenean Josefa (14).

Txikiena Concepcion zegoeneko Galizian ezkondu bazen semeak jaso zuen aitarenaganako maitasuna eta bere emaztearen hilotzian jakina omen da Domingo MURGIAK egindako obrak entzun zituztela Rosalia de CASTRORI azken agurra egitera inguratu zen gendea. Familiatz aparte Domingoren emaitza beste belarri batzuk ernatu zituen, Jose Maria de ECHEVERRIA ikasle izan zuenak zabaldu zuen aditzera emanetz bere irakasle interprete ona aparte egile nabarmena ere izan zela. Zoritxarrez partiturak ihes egin digute (15).

MURGIATARRAK GALIZIAN

Non ezagutu eta nola ezkondu Concepcion MURGIAK Santiago hirian jaiotako Juan MARTINEZ hura? Bai LABAYEN jaunak eta bai VILLAFUERTES

(13) Aita DONOSTIA, *El órgano de Tolosa*.

(14) Eliz barrutiako Artxiboko hil-agirian.

(15) Euskalherriaren alde, *Los Murgias*, Ignacio QEREJETAK ida.

kondearen leinuko J. M. ZABALAK adots daude. Frantziatik San Luisen 100.000 semeen etorrera Tolosaldera inguratzen ari zen susmoaz belduz eraginda Santiago aldera joatea erabakitzen du kondeak bere lagunaren familia eramanaz.

Galiziako elkar borondatearen moldatzaile eta kreatora izango dena 1837. maiatzaren 17 an jaio zen. Lainu izpirik gabe, lasai lasai pasa zuen aurtzaroa Coruña hirian. Santiago hirian bukatuko ditu bigarren mailako ikasketak non aitak aldatu baitzuen botika urte batzuk aurrerik. Farmazigintzako ikasketak amaitu zituenean Madriden erabaki gogorra hartzen du. Zenbakiak baztertu eta hizkietan sartzen da.

Hamazazpi urte besterik ez zituen «Desde el cielo» nobela idatzi zuenean. Iberaiko idazketan berehala nabarmendu zen Cortesko kazetari argienetako bat bezala. Archiveros, bibliotecarios y anticuarios deritxan funtzionari sailean sartu zenean Simancasko artxibo orokorrara bidali zuten 1868. urtean. Bi urte beranduago Galiziako Artxibo orokorraren buru izendatu zuten. Handik Santiago Unibertsitateko liburutegira joan eta azkenik Coruñaiko finantza delegazioko liburutegitik erretiratu zuten soldata barik.

Hil zen egunean 1922. urtean hain zuzen hirurogei urte pasa zituela kulturari bizia emanaz konturatu zirenean herritarrek aitzindari bezala egin zizkieten azken agurrak. Bai eta urte bat beranduago Manuelek lehendakaritzapean zuzendu zituen Galiziako Real Academiao lagunei burura zetozkie harrek esandako hitzak: «con razón o sin ella, locura o posibilidad desde que aliento vive en mí un sentimiento y una aspiración que, sin dejar de ser los mismos, han ido transformando los años, la experiencia y los sucesos. A este sentimiento, a esta aspiración de toda mi vida no he faltado jamás. Le soy fiel como en los primeros días de las esperanzas juveniles. Mi madre que era de aquella tierra en que ni se teme ni se miente me dio con su sangre el eterno amor a mi país natal» (16).

Galiziak ez zituen baztertu ez Manuel, ez Rosalia, bere emazte, ez eta Ovidio, semea. «Tres monumentos conserva nuestro país que son testimonio de las prosperidades por él alcanzadas a lo largo de su historia, el pórtico de Mateo, los cancioneros trovadorescos y la obra de la familia MURGIA- CASTRO», dio oso zabaldua den esaldi batek (17).

1871. uztailaren biau jaio zen Ovidio MURGIA. Espasak bera bakarria aitatzen du MURGIA izena kokatzen duenean «pintor de grandes promesas muerto en la flor de la vida» esanez. 1900. urtarrilan lehengoan hil zen. Gauzak bere kasara zihoztenean, Eugenio MONTERO RIOS jaunak jauregia apaintzeko agindu zionean gaitza malapartatu batek moztu zien bizitza. Galiziako goipaisajista izendatu zuten hark ondorengo gabe alde egin zuen.

(16) Real Academia Gallegako 150. aldizkaria.

(17) Jose Luis BUGALLAL MARCHESIK Academiao kide izendatu zutenean egindako lana: *El sentimiento lírico materno en la pintura de Ovidio Murgia*.

Arrebak ez zuten semerik izandu. Datu honek behartu zuen Carlos NAYA jauna «el final de una estirpe: Rosalía de CASTRO y Manuel MURGIA» artikulua idaztera.

Garrantzi handikoak baziren Murgiatarrek muskagintzan egindakoak ez ziren atzerago gelditu Literatura eta Margolagintzarekiko lanak. Galiziak maite ditu. Galiziak goratzen ditu. Aitaren izenez sekulan sinatu ez zuenak amaren izenza aukeratuz aipamenik gabe pasa zen Euskalherrietik. Milaka gutun jaso zituzten alabak aita hil zen egunean. Bat ere ez hemendik. «Donde ni se teme ni se miente» deitu zuen lurraldeak behar luke gaur onar Galiziako goi seme hau euskal seme.

FAMILIA MURGIA

Nicolás MURGIA - Pascuala Antonia AZCONOBETA

- Joaquín Tadeo
13 de enero 1759
- Felipe Domingo
23 de agosto 1760
- Domingo María Joaquín
8 de febrero 1762
- Josefa Ana
octubre de 1763
- José Bentura
26 de febrero 1765
- José Manuel Angel
6 de junio 1767

Domingo María - Felipa EGAÑA

- Joaquín María Nicolás Domingo
9 de setiembre 1787
- José Joaquín
9 de julio 1789
- José Luis MURGIA
25 de octubre 1791
- Josefa MURGIA
2 de diciembre 1793
- Pedro Ignacio MURGIA
1797

- Ramón MURGIA
15 de febrero 1800
- Fidela Ignacia
25 de abril 1801
- Celedonio MURGIA
23 de diciembre 1803
- Concepción MURGIA
29 de enero 1806

Concepción María EGAÑA - Juan MARTÍNEZ DE CASTRO

- Manuel Antonio MARTÍNEZ (MURGIA)
17 de mayo 1833

Manuel MURGIA - Rosalía de CASTRO

- Alejandra MURGIA CASTRO
12 de mayo 1859
- Aura MURGIA CASTRO
7 diciembre 1868
- Gala y Ovidio MURGIA CASTRO
8 de julio 1871
- Amara Honorata María del Carmen
17 de julio 1873
- Adriano (muere pequeño)